

# Ikastetxearen STEAM izaera

## 1.- STEAM planaren implementazioa

- a.- STEAM deialdian une jakinetan hartzen du parte, STEAM proiekturen bat martxan jartzeko.
- b.- STEAM plana diseinatuta dago, eta Urteko Planean txertatuta.
- c.- Programazioetan, STEAM ikuspegia islatzen da.
- d.- Planaren jarraipena eta hobetzeko proposamenak sistematizatu dira.

## 2.- Irakaskuntza-mota

- a.- Metodologia aktiboak eta teknologia berriak erabiltzen dira.
- b.- Erronka-egoerak edota proiektuen metodologia modu orokorrean erabiltzen dira ikastetxean.
- c.- Aztertze-estrategiak eta metodo zientifikoa ardaztat jotzen dira, irakaste-eta ikaste-prozesuan.
- d.- STEAM konpetentziak neurtzen dira ebaluazio-prozesuetan.

## 3.- Hezkidetzaren STEAM eremuan

- a.- STEAM eremuan egiten den irakasleen prestakuntzan hezkidetzarako ikuspuntua lantzen da.
- b.- STEAM ikasgaietan genero-ikuspegia txertatzen da propio.
- c.- STEAM planaren eta hezkidetzaren arteko osagarritasuna lortzen da.
- d.- STEM bokazio eta asmo profesionalak genero-ikuspegiarekin sustatzen dira.

## 4.- Ikastetxearen kudeaketa

- a.- Ikusten da zuzendaritza STEAM eremuan inplikaturik dagoela.

- b.- Azpiegitura teknologikoak, baliabideak eta koordinazio-egiturak eta -prozedurak antolatzen dira, STEAM kompetentziak garatzeko.
- c.- Ikastetxearen kulturaren, STEAM eremuko garapen profesionala sustatzeko estrategiak erabiltzen dira.
- d.- Etengabeko hobekuntzak egiten dira, eta STEAM planaren garapenaren efizientzia lortzen da.

## **5.- Materialgintza**

- a.- Materialak berrikusi dituzte STEAM ikuspuntutik.
- b.- Ikastetxearen ekoizpen-lan batzuk STEAMgunean partekatzen dira.
- c.- EIMA deialdietan parte hartzen dute STEAM eremuko euskarazko materialak ekoizteko.
- d.- Argitalpen-lanak egin dira egindako lanaren inguruan.

## **6.- Zabalkundea eta partekatzea**

- a.- STEAM kontzeptua eta ikastetxeko plana ezagutzen ditu hezkuntza-komunitateak.
- b.- Partekatuz ikasi deialdian hartzen du parte, bere esperientzia beste ikastetxe batzuekin partekatzeko.
- c.- Bere ingurune hurbilean, STEAM jarduerak antolatzen dira bertako eragileekin lankidetzan.
- d.- Harremanak sistematizatu dituzte beste erakunde, instituzio edota gizarte-eragileekin, STEAM jarduerak garatzeko.